

MOBILIZAZIOAK IRAKASKUNTZAN MURRIZKETEN ETA LOMCE-REN AURKA, BENETAKO NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN ETA HEMEN ERABAKITZEKO ESKUBIDEAREN ALDE

**STEE-EILAS, LAB eta ELA sindikatuek LOMCEren aurkako ikastetxeetako klaustroen
atxikimendua eskatuko dugu, Hezkuntza sailari interpelazioak luzatuz.**

Gure hezkuntza sistemak jasaten ari den eten gabeko erasoak izaten ari diren ondorio nagusiak hezkuntzaren kalitatearen kaltetzea eta langileon lan baldintzen okertzea dira. Berdin Madrilgo gobernua, zein Nafarroakoa eta EAeko jaurlaritza, azken hauek eragile sozialen, sindikalen, politikoen eta oro har jendarte osoari muzin eginez, gutxiengoan inposatutako neurri zehatzen bitartez eta aurrekontuetan ezarritako murrizketen bitartez, hezkuntza mundura politika neoliberalak ekartzen ari dira. Era horretan, krisiaren ondorioak berau sortu ez dugun herritarroi ordainaraziz.

Era berean, Madrilgo gobernuak, estatuaren birzentralizazio eta uniformizazio planari jarraiki, LOMCE delako legea inposatzeko prozesuari jarraipena eman nahi dio, hurrengo urratsa aurreproiektua Espainiako parlamentura helaraztea izango delarik.

Ugariak izaten ari dira eskola komunitateak arlo batean zein bestean burutzen ari den ekimen sorta, neurri murriztaile eta inposatzaileak salatzeke, arbuiazeke eta beste era bateko neurriak behar direla aldarrikatzeko. Argi eta garbi gelditzen ari da ez ditugula murrizketak onartzen, LOMCE-ren aurka gaudela eta gure hezkuntza sistema bertan erabaki nahi dugula.

Honekin batera, langileon lan baldintzei buruzko benetako negoziazioa, konpromisoak eta bermeak bidera ditzan exijitzen diegu administrazioari.

Horren harira indartu ditugu mobilizazioetarako deialdia, delegatuen elkarretaratzeak eta ikastetxeetan “eskolak kalean” izeneko ekimena bultzatuz. Hauek guztiak ikastetxe bakoitzean eta eragile ezberdinek bultzatuta burutzen ari diren ekimenekin bat egiten dute.

Beste urrats bat eman nahian, proposamen berria luzatu nahi diegu ikastetxeetako klaustroei, LOMCE-ren aurreproiektuaren aurrean euren salaketa-adierazpena egin dezaten eta eusko Jaurlaritzari interpelazioa luzatu diezaioten, LOMCEri ez esateko eta halakorik gauzatuko balitz hemen ez aplikatzeko eskaera eginez.

Arestian aipatutako mobilizazioek maiatzean eta ekainean zehar izan dute jarraipena. Gaur bertan, ekainak 7, ikastetxe ugartan ari dira “Eskolak kalean” ekimena burutzen. Dena den, mobilizazioek ez dute etenik, eta maiatzaren 30eko grebaren ostean ikastetxeei begirako klaustrokako atxikimendu kanpaina bati eman diogu bidea. Era horretan, ekainaren 20ari begira jasotako atxikimendu guztiekin Gobernuaren aurrean interpelazio kontzentrazio bat ere burutzeko asmoa dugu.

LOMCEri EZ!

MURRIZKETARIK EZ!

EUSKAL HERRIAN GURE HEZKUNTZA ERABAKI!!

Donostian, 2013ko ekainaren 7an

